

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak dio ez direla sinesgarriak Sorturen eta Bilduren azalpenak

Frantzia gertatu den tiroketa "gorabehera" izan dela esatea "printzipio demokratikoei irain egitea" dela iritzi du

Lunes, 11 de abril de 2011

Nafarroako Gobernuak, Alberto Catalán Higuera Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria eta Gobernuaren eledunaren bidez, Vallièren (Creuse, Frantzia erdialdean) joan den larunbatean gertatu zen tiroketa gaitzesi du. Ustezko bi etakidek Frantziako gemdarmeriaren kontrol baten aurka tiro egin zuten eta agente bat zauritu zuten. Catalán kontseilariak esan du espero duela gendarmeak hobera azkar egitea eta Frantziako segurtasun zerbitzuak zoriondu ditu, atzo, igandea, tiroketen ustezko egileak atxilotzeagatik.

Horrez gain, herritarrei eskatu die ezker abertzaleak atentatu horren inguruan izan duen erreakzioaren analisisa egiteko, Sortu eta Bildu platafomek esandako eta "entzun behar ditugun zein entzun behar ez ditugun mezuen inguruan". "Beste behin ere, erakutsi dute emandako azalpena ez dela sinesgarria, ez bakarrik haien jarrerengatik, baita ekintza eta adierazpengatik ere", esanez amaitu du.

Horri lotuta, benetan istilua edo tiroketa izan zenari "gorabehera" esatea "printzipio demokratikoak iraintzea" dela iritzi du. Foru Gobernuak terrorismoaren aurkako borrokan Frantziako eta Espainiako polizia-agintarien arteko lankidetzaz azpimarratu du "azken urteetan lankidetzaz horrek onurak ekarri ditu" eta, berriz ere, demokraziaren aldekoak batzea eskatu du ETArri aurre egiteko.

"ETArri eta horren sarea osatzen duten taldeek ez dute inolako sinesgarritasunik, ez lehen ez orain: ez aurreko su-etenetan ez gaur egungoan. Jakina da ETA hiltzaile talde bat dela, eta Zuzenbide Estatua talde horretatik babestu behar da", erantzun die kontseilariak eta eledunak kazetarien galderei.